

Pil-Pilean

4. Zenbakia

1996ko Abendua



Limpiezas Trejo

Telefonoak: 20 25 27 eta (908) 57 27 88



JAI ZORIONTSUAK ETA

URTE BERRI ON!!!!

DENDA LAGUNTZAILEAK:

ARZABALAGA ZAPATADENDA

EROSLE

M^a MAR HARATEGIA

M^a JESUS GOZOTEGIA

JUANMA ARGAZKIDENDA

ESTANKUA-1

MARIAJE MERTZERIA

ARTEDI MARRAZKI-ESKOLA

ETXEBERRIA BITXIDENDA

Oharra: akats teknikoa dela eta, ezin izan dugu sartu gure kidearen izena
(Oskar Elizburu) Denborapasa sailean.

Euskararen geroa Soraluzen

Epa:

Gu Plaentxiako bi gazte gara eta gaur egun euskerian egoerari buruz gure iritzixa emon nahi dou.

Guk kalian ikusten dounez euskaraz dakixan gazterixiak oso gutxi erabiltzen dau eta gutxi dakixanak lotsiagatik edo beste zezegaitxik ez dau eitxen euskeraz, orduan, euskeria galtzen doia, nahiz ta Plaentxian, umien artian eta zaharren artian bizirik dauan.

Nahiko genduan jendia animatzia euskeria gure kulturian dalako eta gure ustez erderia baino askoz politxaua dalako. Lotsatzen dan jendiari esan nahi dotxau lotsagarria zera dala, jakin eta ez erabiltzia.

Ez dakixenendako, ahalegintzen badira lortuko dabezela baina ez badabe ezer eitxen ez dabezela lortuko.

“EUSKERA EZ DA GALTZEN EZ DAKIXANAK IKASTEN EZ DABELAKO, DAKIXANAK ERABILTZEN EZ DABELAKO BAIKIZ.”

Udal aktibitateak...

Kaixo lagunok:

Neska gazte bat naiz, eta ez da harritzekoa soraluzetarrok beti beste herri batetara joan behar izatea edozer gauzatarako.

Orain dela gutxi erosi behar nuen fluoreszente bat sukalderako eta konturatu nintzen herrian ez zela horrelakorik saltzen eta pena bat iruditu zitzaidan.

Baina hau ez da dena. Jaixak gero eta pobreagoak dira eta batzuk Ermuara joaten dira.

Zinemazaleentzako ez dago ia aukerarik eta filme bat igandean ipinita pentsatzen dute arazoa konpundu dutela eta ez da horrela; hurrengo astelehenean telebistan jartzen baitute.

Agur

L.P.

Zerbitzuak herrian

Kaixo aldizkarikoei:

Eskerrik asko nire iritzia botatzean ematen didazuen aukeragatik. Niri egiten duzuen lana oso ona iruditzen zait eta bazen ordua gure herrian aldizkariren bat egoteko.

Bizi garen herrian ez da gertakari asko gertatzen eta nire ustez, honen erruduna gure udaletxea da. Orain dela gutxi eduki dugun gauza polit bat lehenengo Gaztañerre Azoka izan da eta jendeari asko gustatu zitzaion. Hemendik eskatu nahi diot Udaletxeari ekintza berri hau mantentzea eta beste gauza interesgarri batzuk antolatzea.

Nere partez ez dago gehiago esaterik. Eskerrik asko eta jarraitu horrela, lan itzela egiten ari baitzarete Pil-pilean kaleratzean.

Soraluzetar bat.

Argitaratzailea: Pil-Pilean Kultur Elkarte. 121 Posta Kutxatila. **Erredakzio kontseilua:** Gizarte saila: Maite Exeberria, Eduardo Pombar, Mónica Sarmentero, Ainhoa Sarmentero. **Gaurkotasan saila:** Aitor Gabilondo, Maite Elizburu, Gorka Prieto. **Kale inkesta:** Ohiana Garitano, Amaia Agirre, Ainhoa Artolazabal, Maitane Maiztegi, Leticia Alvarez, Nagore Sanz. **Kirol saila:** Mikel Gartzia, Iñaki Alberdi. **Kultur saila:** Ubane M., Gurutze Ariznabarreta, Elene Alberdi, JoseRa, Egoitz Unamuno. **Denborapasak:** Monica Carmona, Olga Lozano. **Denetarik Blai:** Sabin Mendizabal, Loiola Madera. **Argazki arloa:** Ohiana Garitano. **Diseinua eta maketazioa:** Gorka Prieto. **Hizkuntza arduraduna:** Gurutze Ariznabarreta. **Publizitatea:** Mikel Gartzia, Gorka Prieto, Mónica Sarmentero, Ubane M. **Tirada:** 500 ale. **Imprimategia:** FastPrint (Eibar). **Copyright-a:** Pil-Pilean Kultur Elkarte.

Pil-Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

FUTBOLAREN GEHIEGIKERIAK

Leku orotan ezaguna eta ospetsua den fenomeno bat badago, berau gustuko duen jendearengan eragin nabarmena duena. Fenomeno honek, noski, badu Euskal Herrian bere oihartzuna. Zein fenomenoz ari naizen? Futbolaz, nola ez!

Igande arratsaldeak lehendik aspergarriak baziren ere, geroz eta gogaikarriagoak bilakatzen ari dira futbola atsegin ez zaigunontzat behintzat. Egun honetan futbola gustuko ez duen edonork kalean tabernaz taberna ibili nahi badu, bereak egin du.

Arratsaldeko 5ak inguruan taberna gehienek irratia piztuta izaten dute. Horrela, futbol partiduen erretsasmisioa entzuteko aukera paregabea dago, eta oraindik kalean jende asko ez badago ere, jadanik ezinezkoa izaten da kafetxoa lasai-lasai hartzea.

Oso gauza bitxia da baina taberna gehienek Canal plus-a daukate eta igandero igandero, arratsaldeko 7'30ak inguruan futbol partiduren bat ematen dute zuzenean .

Beraz , irratiarekin nahikoa ez bagenu ,telebistak ere badu bere txanda . Horrela , minutuak aurrera egin ahala, tabernak piskanaka - piskanaka betezen doaz .

Kanpandorreak 8ak jo orduko , tabernak jendez gainezka egoten dira zaletuak oihuka, aurrekoak GOOOOOOOOOL! atzekoak penalti, ondokoak jokoz kanpo..... Hau eromena!Bat- batean , makina bat ume sartzen da tropelean tabernariari koka kola txapa eske.Tabernariak kokoteraino ezetz erantzuten die buruarekin, badirudi koka kola botiletako txapetan futbolarien aurpegiak agertzen direlako eta horrexegatik umeak zoroen pare dabilta tabernaz taberna hauen bila.Hau da hau, txapak ez direnean , koka kola latak dira, latak ez direnean txikleak dira.....

Tabernetan futbola ikusteko eta entzuteko aukera izaterakoan zaletuak zuzenean taberna barrura sartu eta, noski, bertan kontsumitzen dute . Azken finean , hauxe da tabernariei komeni zaiena. Horrela, igande

arratsaldeetan diru piska bat irabaztea lortzen dute eta, neurri handi batean , hau futbolari esker gertatzen da .

Euskal Herrian kirol askorekiko dago zaletasuna , pilota, txirrindularitza, esku baloia eta saski baloiarekiko esate baterako.Baina futbola bestelakoa da.Kirol honek eragin handia izaten du bere zaletuengan,badirudi axola zaien bakarra beraien taldeek irabaztea dela eta emaitza alderantzizkoa bada erraz soma daiteke zaletu hauen aurpegi nahiz umorean.

Komunikabideek zer esan haundia dute fenomeno honen inguruan , izan ere, futbolari buruzko berriak nonahi hedatzen baitituzte. Egunkari, telebista edo irratia ezberdinen informazio larregi kaleratzen dute, hots , hiper informatzen gaituzte.Ondorioz, kirol honek gure gizartean duen eragina areagotu egiten da. Azken finean futbola gure kulturaren erabat sustraitua dagoen fenomeno da eta hauxe gure herrian nabarmena da. Tamalez, kirol hau gustuko ez dugunok , futbol mania hau irentsi beharra daukagu.

Soraluzen “Euskal Presoak Euskal Herrira” deituriko plataforma sortu berri da

Astelehenean, abenduaren 16an plataforma berria eratu zen “Euskal Presoak Euskal Herrira” deiturikoa. Berau Soraluzeko arlo desberdinetako pertsonen osatua dago, besteak beste, Kultura, Kirola, Osasuna eta Irakaskuntza mundukoak.

Sortu berri den plataforma honek udaletxeari zera eskatzen dio: 1995-11-6an Soraluzeko udaletxeak onaturikoa bete dezala. Mozio honetan preso eta senitartekoen oinarrizko eskubideak errespetatzea, presoak Euskal Herrira gerturatzea eta baldintzak betetzen dituzten guztiei baldintzapeneko askatasuna ezartzea eskatzen da.

Taldearen helburu bakarra Euskal Presoak Euskal Herrira etor daitezela da, legea betetzea, eta plataforma honen lana hau lortutakoan bukatuko litzateke.

Historia txikia eginez, plataforma honen ideia, presoengain inguruan sentsibilitate berdina zeukan talde txiki bat elkartu zenean sortu zen, “eta ikusirik beste herietan horrelako taldeak, horrelako plataformak

montatzen zeudela, gu ere hasi ginen pentsatzen nola antolatu Plaentxian horrelako talde bat legalitatea lortzeko eta ahal den eta bizkorren Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzeko” zioen plataformako partaide batek.

Soraluzeko presoengain egoerari dagokionez, legalitatea ez dela betetzen argi ikus daiteke Soraluzeko presoengain egoera kontuan hartzen badugu: Joxean orain dela urtebete kalean egon behar zen, legez baldintzapeneko askatasuna izan beharko luke, eta kaleratu beharrean, urrunago eraman dute, Burgosera hain zuzen ere. Pedro Jose, une honetan Valdemoron dago irla Balearretako destinoa duelarik. Lurdes, berriz, 500 km baino urrutiago dago.

Hiru kasu hauek kontuan hartuta, argi eta garbi ikusten da bat bera ere ez dagoela legalitatearen barruan, “eta hauxe da ba guk lortu nahi duguna: Euskal Presoak Euskal Herrira” plataformako partaide baten esanetan.

ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!!!

Kidari, S. L.

Asesoría Empresarial

Santa Ana, - Tel. 75 17 82 - SORALUZE

Soraluze internazionala

PILAR (KUBATARRA)



Hona etorri zen bizi izatera, bere senarra hemen jaioa delako eta Kuban arazo ekonomikoak zeudelako.

Soraluzen egondakoek esan zioten Soraluze erreka bat, eliza bat eta kale bat zela, "ezer ere ez". Etorri zenean impresionatuta geratu zen eta pentsatu

zuen: "Zelako herri handia, ezta?". Oso polita eta aintzinakoa da, desberdina.

Herriminaren inguruan zera esan zigun" beti dagoela ". Denborarekin poliki- poliki desagertzen doala, lehenengo urtean sistema kapitalistaren gauzek harritzen zutela baina hasierako harridura hori pasatzen denean herrimina hasten dela eta gero berriro desagertzen doala. " Eta orain Kubari buruzko programaren bat ikusten dudanean malkoak irtetzen zaizkit." - esan zuen Pilarrek.

ROSA (ARGENTINARRA)



Hona etorri ziren bere senarra hemengoa delako eta beti irakatsi dietelako hona etortzea zela onena.

Idea hau lantzen joan zen etortzeko aukera sortu zen arte. " Han genuen lana utzi eta hona etorri ginen" - esan zigun Rosak. Lehenengo bere senarra

etorri zen, urtebete pasa eta gero Rosa eta bere alaba.

"Niri Soraluze asko gustatu zitzaidan gu lautada batetik gatzoz eta orduan hona etorri eta hainbeste mendi ikustea eta honelako aintzinako herria..."

Herrimina dago baina momentuz ez daukate dirurik hara joateko " primitiba tokatuz gero joango gara oporretan ".

ALEX (ERRUSIARRA)



Beraien senideak hemen bizi zirenez hona etorri ziren. Hemengo jendeak harrিতuta utzi du, oso alaia delako. Herria gustatzen zaio, ez dagoela gaizki iruditzen zaio.

" Errusia gogoan dut oraindik " - dio. Oraindik lagunak gogoan ditu.

VICKY (VENEZUELARRA)



" Nire aita hemengoa da eta hemen dauzkat senide guztiak. Hona bizimodu berria probatzera etorri ginen " - esan zigun Vickyk.

Gehien harritu zuena hemengo askatasuna izan zen, hemen kalera sarritan irtetzen da eta han ostera, goizeko 6tan etxera ailegatzea ezinezkoa litzateke.

Herriminez ez dago, Soraluzera bizi izatera etorri zenean 10 urte besterik ez zuelako.

FERNANDO (VENEZUELARRA)



Bizimodu hobearren bila etorri ziren, han ez zeudelako ondo.

Hemen jaioa da eta itzultzean garapen handia aurkitu du obren azpiegituran eta bizimoduan batez ere.

" Bizitza erdia Venezuelan eman dudanez herrimina izatea logikoa da."



ITXAROPENA
TABERNA
SORALUZE

Etxaburueta, 4 - Telefonoa 75 23 30



Errelegi
Fatetxea
ESOZIA

Bº Esozia, s/n - Tel. 75 10 01 - SORALUZE

Badator Olentzero poltsikoak urratuz!!!

Urtero bezala gabonak heldu dira eta honekin batera bizitasun berezia sortzen da kale eta etxeetan, kolore eta argiz janzten direlako.

Haurrek oporrak dituztenez, ikastolako lanak alde batera utzi eta erregali eske hasten dira. Langileek egun batzuetan zehar lanari uko egiten diote, beren senide eta lagunekin elkartzeagatik.


Bitartean, etxekoandreen kezkek agertzen dira; zenbatean dagoen angula kilo, mahats nahikoa egongo den, zein joku mota nahi duen semeak..., saltzeko amorru bizian dauden dendarien aurrean.

Gabon zoriotsuak igaro ahal izateko, guztiak zuzen irten behar du, akats egiteko aukerak desagertuz; eta hau gerta dadin alde guztietatik esfortsu nahiko egin behar da, lagun eta festa giroanurte berriari ekiteko.

Lehen esan bezala, garai honek dakartzan gastuak eta janariak orestatzerako orduan sortzen diren buruhausteak gutxi badira, komertzioak bere gain ezartzen dituen baldintzak ere ez dira nolana hikoak.

Benetan egun aproposak dira elikagaien prezioak goranzko joera bat izan dezaten. Honez gain merkatuak eskaintzen dituen produktu bereziok jendearen eskaria piztea lortzen du eta behar bada prezioak duen lehentasunak bere ardura galtzen du. Denok kalitatearen bila joaten gara prezio horren zioa faktore honekin justifikatzen saiatzen gara. Janari kontuak alde batera

utzita, poltsikoak urratzen laguntzen duen beste fenomeno bat opariena dugu; aldiz hauek pertsonalki duten esanahia azpimarratzekoa da, egia esan denok izaten baitugu zerbait oparituko digutenaren segurantz.



Ilusioari begiradafxo bat...

Bestalde, nabarmena da guzti honetan komunikabide iturri ezberdinek jokatzeko duten papera, iragarkiak ikustea besterik ez dago; gehienak garbiketarako produktuak izatek haurrentzako jostailu eta egun hauetako elikagai espezifikoak izatera pasatzen dira, sentimenduz atsekitutako iragarkiak dira hauek gizakienganako erakargarritasun eta kohesio sentimendua sortarazten dutelarik. Gainera, komunikabideengandik jasotzen dugun "bonbardeaketaz"

konszienteak garen arren ezer gutxi egiten dugu egoera aldatzeko, ez baita txantxetako etxe bakoitzean suposatzen duen diru kontua, langileek jasotzen duten "extra" delakoaren geltokia non ote dagoen izango da gakoa.

Bestalde, ume euskaldunak Olentzeroren zai egon arren, beste eredu arrotz zenbaitek kolokan jartzen dute gure ikazkin zaharren etorkizuna. Erregeak direla eta ez direla, hamaikatxo eztabaida izan ohi da ia familia orotan.

Azken batean, apur batean horri so eginez gero, zera pentsatzera hel daiteke; jendearen gabonetako sentsibilitate eta zirrara bereziaz aprobetxatuz, beraien azken sosak non enplegatzeko bidea besterik ez direla erregeak.

Okerrago da oraindik, komunikabide desberdinetatik sarrerarazi nahi diguten eredu "amerikarra". Nork ez baitu ikusi pantaila txikian egun hauetan zehar bizar zuri eta traje txuri gorridun tipo lodikote hori? Dirudienez izen askodun eta Euskal Herrian tradizio gutxidun tipo hau Santa Klaus edo Aita Noel deitzen da.

Dena dela, non gelditu ote dira Gabonen benetako zentzua eta esanahia? Kontsumismoak zentzu hau zanpatu duen egun hain faltsu hauetan, etorkizuna denon eskuetan gelditzen dela esatea besterik ez daukagu. Gabon zoriotsuak izan ditzazuela!

BAR TXERGORI

Banderiletan Espezialetatea

Balteguieta 4

SORALUZE

Tlf: 75-12-36

OSASUNA TABERNA

Bokatak, pintxo bereziak, plater konbinatuak eta kazuelatxoak.

Gabolatz 10

SORALUZE

Tlf: 75-18-36

Asteburuetan Plazentzia txiki gelditu da

Asteburuetan ikusten den giro ikaragarria ikusirik kalera irten gara egoera honen berri izatearren. Hau egiaztatzeko herriko kamarero ezagun batengana jo dugu, eta hona hemen berarekin izan genuen solasaldi atsegina:

Ohizko asteburu baten zer giro espero duzue?

Ba... ostiraletan jende asko ibiltzen da, asko edo, nahiko, eta zapatuetan gutxiago. Eta jada domeketan jende nagusiagoa ibiltzen da.

Futbola ikustera etortzen dira, ez?

Ba, bai, etortzen dira, arratsaldean generalean. Jende gatea gehien bat, zaharrak ere bai, baina jende gaztea asko.

Gaur Azaroak 29, Eibarren San Andresak dira eta honek izan dezake eraginik Plazentziako asteburuan, giro aldetik?


Ba, bai, bai. San Andresak direnez espero da, edo espero dut nik behintzat oso jende gutxi ibiltzea Plazentzian, gaur ostirala. Eta zapatuan gutxiago seguraski.

Plazentziako asteburu batera bueltatuz, zer motatako edariak kontsumitzen dira gehien bat eta 18 urteko gazteei maila berdinean eskeintzen zaie alkohol edari mota guztiak edo hartzen da kontutan zenbat urte dauzkan jendeak edo ez du eraginik?

Ba, bai, bueno. Tragoak 18,19, 20 eta 21 urtekoek ba, kafea, asko edaten

dute, zuritoak eta zerbeza. Hori gazteek, eta nagusiek trago luzeak; txanpaina... Bueno, segun; kubatak, gin kas, gauza horiek. Denok dakigu zer gauza ez?

18 urtetatik beherakoak, ba..., jeneralean oraintxe hasi dira alkoholaren kultura aldatzen baina orain arte zerbezia eta kalimotxua,



Luis herriko tabernari jator bat.

eta ardoa ere edaten zuten batzutan. Orain jada, ura edaten hasten dira eta Cola-Cao-a eta beste gauza batzuk.

Tabernari zaren bezala, nabarmendu al da azken urteotan jendearen aldetik aldaketaren bat kontsumo eta giro aldetik? Eman al da gorakada edo beherakadaren bat? Eman baldin bada hauetariko

faktoreren bat zein da zure ustez arazoa edo arrazoia?

Bueno, ba, bai. Igarri da ez? Ba... jende beherakada igarri da. Baina adibidez asteburu normal baten ba... beti jende berdina irtetzen da, berdina edo...bai, antzerakoa beti. Oraingo kopurua eta orain dela 10 urte zegoena ez da berdina baina...gainera herri baten jaiak direnean igartzen da jende falta.

Eta arazoa, eta arrazoia, ba...zera izan daiteke; lan falta edo beste herri batzuetan beste diskoteka berriren baten sorrera. Gauza horiek.

Zuk hemen aipatu duzu diskoteka batzuen sorrera eta horrek jaitsi dezakeela Plazentziako giroa, orduan zer neurri hartuko zenituzke zuk egoera hau aldatzeko, hau da, Plazentziako giroa aldatzeko?

Azken finean, diskotekek ez dute hainbeste eraginik herri txiki batean, ezen eta jendea diskoteka batera 4etan edo 4 t'erdietan edo joaten da. Ba bueno... beste arazo batzuk ere izango dira, nik momentuz ez dakit.

Eta zer egingo nukeen, ba... adibidez neuk ezer ere ez, baina herriko gazteek lehengo beraien herria apreziatu, eta hortik hasiko litzateke jendea kalera gehiago irtetzen. Gero etorriko liriateke beste gauza batzuk.

Gabonak direla eta, zein da zuek daukazuen perspektiba Eguberrietako eta Gabon Zaharretako poteoan sortzen den giroari buruz? Gabonetan diru sarreran diferentzia handia dago edo horrelako beste egun batzuk


AKELARRE TABERNA

Bokatak, pizzak eta kazuelitak

Tif: 75-31-02

SORALUZE

BOLIA TABERNA



Tif: 75-11-04

SORALUZE

Herriko gazteek
lehenengo beraien herria
apreziatu beharko lukete.

asmatu beharko lirateke horrelako
sarrerak izateko?

Bueno ba, bai, ez? Gabonetan igartzen da jendeak soldata handiagoa duela eta diru gehiagorekin ibiltzen dela. Diru denetarako egoten da Gabonetan eta gehien bat tabernetarako. Diru sarreren igoera igartzen da egun hauean, kaja gehiago egiten da. Nire ustez, hilabetero Gabonak izatea mundiala litzateke.

Bueno, ba, eskerrik asko zure kolaborazioarengatik, Luis.

Ez horregaitik, gero arte.

Anima zaitetze, beraz,
aurtengo Gabonetan jai giroa
punta-puntan eusten.

/ Aitor Gabilondo
Maite Elizburu
Gorka Prieto



GAZTELUPE
TABERNA

Iragana etorkizunari begira (I):

Soraluzeko populazioa zer?

Gure herriko biztanlegoaren gainbeheraren arrazoiak bilatzerakoan faktore anitz aztertu beharko lirateke; alde batetik, arazo ekonomikoak agertzen dira, bikote gazteen diru eskasia alegia. Arazo ideologikoa dela ere esatea ez litzateke lekuz kanpo egongo, asko baitira ume gutxi izatea komenigarriagoa dela uste dutenak. Antisorgailuen erabilerak eta gizasemeen fertilitate gradu gero eta eskasagoak izateak ere influentzia ikaragarria dute eta izanen dute etorkizunean. Ez da ahantzi behar emakumearen liberazio sozial eta ekonomikoak ekarti duen aldaketa sakona ohiko familia ereduari, honek Soraluze bezalako herri txikietan ere zuzenki eragiten duelarik.

Faktore anitz hauengatik begibistakoa da beraz, udal mailan gauzatzen ari den jaiotze tasaren jaitsiera (4 jaiotza azken 3 hilebeteotan). Urtean ikastolan sartzen diren haur kopuruak ederki adierazten digu fenomeno honen bilakaera. Bizitza kalitateak zerikusi handia du guzti honen aurrean, teknologiarren laguntzaz merkatuak plazaratzen dizkigun produktu eta abantailenganako grina geroz eta handiagoa delarik gure artean. Azken batean guzti honekin esan daiteke kalitateak kantitateari aurrea hartu diola haurrak izaterako orduan.

Jakin badakigu osasun mailan eman diren aurrerapenekin edo bizitza kalitatearen honekuntzekin bizi itxaropenaren luzapena ondorioztatzeaz at hilkortasun tasaren beherapena lortu dela. Aldiz, lorpen honen aurrean, errealitatea ezagutu nahi badugu datuak seinale garbiak lirateke; hauek adierazten dutenez hilkortasun tasa jaiotze tasaren gain ezartzen da, guzti honek berriz beste ezaugarri garden batera igortzen gaitu; herriko populazioaren zahartze prozesu batera alegia.

Bestalde, azken urteotan, jende askok Soraluze herria utzi behar izan du; ez da borondatezko erabakia izaten, baietik eta irtenbide ekonomikoaren poderioz. Herriak ez ditu lanpostu berriak sortzen, enpresen langile kopuruarekin nahikoa baita eta bestalde, etxebizitzaren eskaintza eta prezioei begira, soluziotzat beste herri edota hiri handiago batera emigratzea litzateke, non lan aukera eta etxe merkatua zabalagoa den.

Honez gain, 60ko hamarkadan Euskal Herrira etorritako gaztelaniar lan eskuaren zati batek, zahartzaroa dela eta, sorterritaztea bilatzen du, herriko populazioa murriztuz.

Ondorio gisa, Soraluze populazioaren murriztapen prozesu baten barneratua aurkitzen da, inguruko herrialdeekin gertatzen den berdintsu.

Gabonetan diru larregi gastatzen dogu?



Izena: Andoni Calles
Adina: 20
Ikaslea

Bai, bai. Juerga larregi dao, erregaluetan bebai. Gastatzeko egun batzuk dia. Merezi dau.



Izena: Isidro Soba
Adina: 34
Algodoneroa

Nundik begiraten dan arabera asko gastatzen da, urteko beste egunekin konparauta. Loiben erregaluetan eta abar, merezi dau dirua gastatzia.



Izena: Maria Pilar Odriozola
Adina: 63
Etxeko andrea.

Ene ba! Merezi, segun, ze esango neban, merezi merezi bai. Gastua batzutan geixegi izaten da okasiño honetan, ez dotsazu horrenbeste bergiraten, lasaiago soltatzen dogu dana.



Izena: Ione Oregi
Adina: 7
Ikaslea

Erregaluak jasotzia gustatzen jata. Olentzeron eta... baina diru asko gastatzen da eta Gabonak asko gustatzen jataz.



Izena: Gorka Prieto
Adina: 19
Ikaslea

Ba, bai. Ez, ez, ez! Diru asko ez dogu gastatzen, baina daukagun diru apurra jua eitsen jaku, zergaitxik azken finian oso garrantzitsua da danontzat eta gainera danok gara ume txiki batzuk barrutik.



Izena: Iñigo Eguren
Adina: 31
Irakaslea

Daukanak bai baina..., baina normalian jendiak diru gitxi dakanez ez da hainbeste gastatzen. Daukanak aukera hori aprobetxatzia beste gauza bat da, baina merezi dau, egun berexizak dira.



Izena: Maite Elizburu
Adina: 20
Ikaslea

Diru larregi gastatzen da bai. Merezi, merezi, Gabonak dirala ta ondo dao, baina jentiak abusau eitsen dau.



Izena: Jesus Arruabarrena
Adina: 48
Komertziala

Normalian bai. Nik uste dot urtian egun batzuk disfratau ein bihar diala, dana ez da izan bihar sufritzia, beraz egun horretan merezi dau.

BATZOKI TABERNA-k jai
zoriontsuak opa dizkizu

Kalebarren 26

Tif:75-12-12

SORALUZE

JOSETXO Ardangela

PINTXO ETA OGIBITARTEKOEN

ESPEZIALITATEA

Atxuri, 9

SORALUZE

Tif: 75-15-71

EKIN URTE BERRIAREKIN GOGOR EUSKARARI !!!

SORALUZEXO AEK EUSKALTEGIA

EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak / EGA eta ALFABETATZE

Matrikula epea:urtarrilaren 13 tik 31 ra

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

Maisuen etxea Tlf:75-14-34

UDALAREN LAGUNTZAZ BEKA SISTEMA EGONGO DA !!!

**Izena eman
aek-n**

Bittor Goenaga

Oraingo honetan, kirol atalari dagokionean txirrindularitza munduan urte asko daraman soraluzetar bat elkarrizketatuko dugu, Bittor Goenaga hain zuzen ere:

Nola eta noiz sortu zen zure txirrindularitzarenganako zaletasuna?

13 urte nituela nire anaiarekin hasi nintzen txirrinduan ibiltzen eta gustuko nuenez, jarraitu egin nuen.

Zenbat urte daramazu txirrindularitzarekin loturik?

Gutxi gora behera 10 urte daramatzat mundu honetan sarturik.

Zer motatako entrenamenduak jarraitzen dituzu? Eta dieta berezirik?

Entrenamenduak denboraldiaren planifikazioaren arabera egiten ditugu. Hala eta guztiz, ia egunero 3 ordu inguru entrenatzen dugu. Dietari dagokionean, denetatik jaten dudan arren, gehien bat pasta eta barazkiak jaten ditut.

Zer neurritaraino da garrantzitsua txirrindulari talde batean entrenatzailearen papera?

Entrenatzailearen papera oso garrantzitsua da, berak planifikatzen baitu bakoitzaren entrenamendua. Bestela gerta daiteke ordu asko sartzea eta hauei etekin gutxi ateratzea.

Talde mailan, zuen artean, harreman onak al dituzue?

Bai, taldean dugun giroa aparta da. Taldea hogeit txirrindularik osatzen dugu eta asko laguntzen diogu elkarrri.

Nola planifikatzen duzu zure denboraldia?

Entrenatzailea eta biok arduratzen gara denboraldiko nire planifikazioaz; urtea luzea da eta urte osoan zehar erritmo berdina mantentzen du. Urte haseran guretzat zein diren lasterketa interesgarrienak aukeratzen dugu, eta honen menpe dago denboraldia intentsitate handiz edo gutxiz hastea.

Kualitate fisiko on batzuetaz gain zer da beharrezkoa txirrindularitza mailan arrakasta izateko?

Niretzako, batez ere, 3 gauza dira garrantzitsuenak: fisiko aldetik ondo zaintzea, eta psikiko aldetik konfidantza eta motibazioa mantentzea.

Zer behar du afizionatu batek profesionaletara igotzeko?

Lasterketa garrantzitsuetan ondo ibiltzeaz gain, goiko mailara igotzeko ezinbestekoak diren kontaktoak izatea beharrezkoa da.

Zein izan da zure lorpenik handiena?

Arrasateko saria, Euskadiko azpitxapelduna rutan, eta Gipuzkoako azpitxapelduna erlojupeko modalitatean.



Bittor Goenaga txirrindularia.

Ados al zaude txirrindularitza dagoen kirolik gogorrena dela diotenekin?

Gogorrena ez bada ere, gogorrenetarikoa dela garbi daukat. Kirol honek dedikazio osoa eskatzen du eta gainera, lehen esan dudan bezala, asko zaindu beharra dago.

Nola baloratzen duzu txirrindularitzak Soraluzen bizi duen egoera?

Nahiz eta egoera oso ona ez izan, badaude emaitza politak lortu dituzten gazte batzuk, Zigor Alberdi eta Ion Oregi esaterako.

Nori gustatuko litzaizuke sprint bat irabaztea?

Jalaberti, oso gustuko dudana txirrindularia delako.

GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE

ARANE POLIKIROLDEGIA

75-24-66

Lehen Roche eta Lemond estimatzen nituen, orain, berriz, Indurain eta Rijs.

Lehen eta orain, zeintzuk dira zure gustuko txirrindulariak?

Lehen Roche eta Lemond estimatzen nituen, orain, berriz, Indurain eta Rijs.

Txirrindulari gazteentzat aholkurik?

Ondo zaintzea eta motibatuta egotea.

Txirrindularitzaz gain, praktikatzen al duzu beste kirolen bat?

Denboraldian zehar ez, baina negu partean skia, igeriketa eta mendia.

Eman al dizu txirrindulari izateak ligatzeko orduan abantailarik?

Txirrindularitzak, beste kirol batzu bezala, fama ematen du eta hau lagungarria da ligatzeko orduan.

Ikusten al duzu Soraluze mailan txirrindularitza munduan arrakasta izan dezakeen norbait?

Oraindik gazteak izan arren, lehen aipatu ditudanek etorkizuna eduki dezakete.

Anekdotarik...

Gogoan dut behin sorbalda atera zitzaidala eta denbora asko igaro nuela medikuaren zai.

Eskerrik asko gurekin izateagatik Bittor.

Zuei.

Mikel Gartzia eta Iñaki Alberdi.

Futbola eta mendia nagusi

Kirol mailan, soraluzetarrok ditugun zaletasunak jakin nahi izan ditugu. Honetarako herritarrei hurbildu gataizkie inkestaxo baten bitartez.

Argi eta garbi dugu bai emakumezko eta bai gizonezkoak edozein kirol praktikatzeke gai direla. Hau horrela izan arren inkestaxo honek frogatu digu sexuak eragina duela kirol bat edo beste bat aukeratzeko orduan.

Honelaxe, ondorio nagusi bezala esan dezakegu futbola eta pilota direla gizonezkoen artean gustukoena, eta mendia eta igeriketa emakumezkoen artean. Era berean, lehenengo taldeak gutxien estimatzen dituen kirol moetak golfa eta gimnasia lirakeke, honen barnean aerobika egonik. Bigarren taldeak, ordea, boxeoa eta futbola kokatzen ditu gustuen zerrendaren azken tokian, nahiz eta azken kirol moeta honetan espero baino zale gehiago egon.

Guzti honi gehitu diezaiokegu boleibolak, gimnasiak eta aerobikak emakumezko asko erakartzen dituela, boleibolak neska gazteak batipat, eta saskibaloiak gizon-zale baino andra-zale gehiago dituela.

Aipatzekoa da, eskia, orohar, gazte jendeak praktikatzen duela sexu desberdintasunik egon gabe. Gainera, ba omen daude jendeak atsegin arren, praktika ezin ditzakeen kirol batzuk; waterpoloa, tenisa eta automobilismoa besteak beste.

Eta bukatzeko, bitxikeri bezala esan, badaudela kirol batzuk jendeak atsegin dituenak baina guretzat nahiko ezezagunak direnak, badmintona eta grekoerromatar kirola kasu.

/ Ainhoa Artolazabal
Amaia Agirre
Mikel Gartzia
Leticia Alvarez

Nagore Sanz
Iñaki Alberdi
Oihana Garitano
Maitane Maiztegi

GRUPO VITALICIO ASEGURUAK

Enrique Reguilón Arrizabalaga

c/ Gabolatz 12

20590 SORALUZE
Gipuzkoa

ATXOLIN TABERNA-k jai zoriontsuak eta urteberri on opa dizkizue!!!

PINTXO BEREZIAK, HOTZAK eta BEROAK

Elizburu Kalea 1

SORALUZE

Tlf: 75-21-31

EKB-k euskararen egoera kezkarria dela adierazi du bere kanpainan

“Eman Euskarari Berea” lemapean, EKB-k (Euskal Kulturaren Batzarrea) informazio eta mobilizazio kanpaina burutu du azken hilabete hauetan, euskararen egoera salatzen. Kanpaina hau irailean hasi eta abenduaren 14an Bilbon egindako manifestazioarekin bukatu zen.

Kanpaina honen bidez, EKB-ren helburua bi aspektu garrantzitsu azpimarratzea izan da. Alde batetik, euskarak eta berreuskalduntze prozesuak hainbat alorretan bizi duen egoera salatu du, egoera larri honen kontzientzia herri eta auzoetan zabalduz. Eta bestetik, Hizkuntz Politika alorrean beharrezkoak diren aurrerapausuak aldarrikatu dituzte.

EKB-ko partaideentzat gaur egun euskarak bizi duen egoera larria da eta kezka hori euskal gizarte osoari helarazi nahi diote. Beraien ustez, hizkuntz normalizazioaren aldeko borondate politiko eskasa dago, izan ere, euskararen aldeko instituzioen politikak ez baitu lortu lurralde batzuetan hizkuntzaren berreskurapena modu sendo eta orokor batez bideratzea.

Euskararen egoera larria dela errepikatzen dute behin eta berriz, eta eragin handia duten faktore batzuk

aipatzen dituzte. Talde honen aburuz, kontuan hartu behar den lehen faktorea egoera soziolinguistikoa da, euskararen aurka jarraitzen duelako. Iparraldean, esate baterako, euskara gainbehera doa, zaharrak baitira euskara gehien ezagutzen dutenak. Bestetik, Nafarroan euskaldunen kopurua baxua da eta EEAn kopuru honek gora egin arren, bilakaera honetan moteltze bat gertatzen da, batez ere, euskalduntzen diren pertsona helduen artean.

Bigarren aspektu gisa, umeen eskola bidezko euskalduntzea aipatzen dute. Honi dagokionez, gizartearen eskaria handituz doa, eta horren adierazle nabarmena 1996-97 ikasturtea da. EEAn eskolan hasi diren umeen %64a D eremuan hasi da eta Nafarroan berriz, umeen %30a. Hala ere, EKB-ren arabera, eskolak euskalduntzen dituen umeak gerora euskaldun mantentzen diren ezin da ziurtatu erdararen eragina nagusitzen delako esparru guztietan: aisialdia, kultura, komunikabideak, lan mundua...Horrez gain, irakasleen euskalduntzea umeena baino murriztagoa da, eta beraz, ez dator bat aurrez aipatutako gizartearen eskariarekin.

Aurrekoarekin loturik, Hizkuntz Politikan hezkuntza oso garrantzitsua

bada ere, talde honen iritziz, ezin da horretan bakarrik oinarritu, komunikabideek, lan munduak... ere lehentasuna baitute gure gizartean. Hori horrela izanik, instituzioetan euskararen erabilpena oso baxua dela kritikatzeko dute.

Horrez gain, EEA eta Nafarroako zonalde batzuetan legeak aitortutako hizkuntzaren erabilpenerako eskubideak bete ezinda gelditzen direla eta, kasu askotan, euskararen erabilpena zigortua izan dela salatzen dute. Adibide gisa, Unibertsitatean euskaraz ikasi nahi eta ezinezkoa duten ikasleen kopurua edota epaitegietan euskara erabiltzeak dakartzan oztopoak aipatzen dituzte besteak beste.

Guzti honen ondorioz, EKB-k Euskal Herriko instituzio politikoei euskararen normalizaziorako Plangintza Orokorra eskatzen die, hots, hizkuntz normalizazioa eta berreskurapena gizateraren lehentasunetan sar dezaten, eta beharrezkoak diren baliabideak jar ditzaten. Hortaz gain, politika horren gauzapenean herritarren parte hartze zuzena eskatzen dute eta, era berean, herritarrei Plangintza Orokorren aldeko herri dinamikan parte hartzea gonbidatzen die.

/ Elene Alberdi

Masajista

- MASAJE GENERAL
- TERAPEUTICO Y DEPORTIVO
- OSTEOPATIA
- PROBLEMAS VERTEBRALES

Asier de los Rios

Teléfono (943) 76 12 12
SORALUCE (Gulpúzcoa)

“Morau” kantari doa

Andoni Tolosa “Morau” kantautoreak lehen disko konpaktoa argitaratu du Gaztelupeko Hotsak zigilu soraluzetarraren eskutik. Lehen iraupen luzeko disko honetan bere ibilbidean zehar idatzitako 14 kantu bildu ditu. Horietako kantu batzuk zaharrak dira eta beste batzuk, berriz, berriagoak.

Abestiak egin eta jende aurrean kantatzeaz gain, Egin Irratian, Donostiako Herri Irratian eta Hernaniko Molotoff Irrati librea aritu izan da Morau azken urteotan programa musikalak egiten gehien bat. Egun, Herri Irratiak emititzen duen “Hegoaldekoa Ostataua” programaz arduratzen da.

1989an “Satorrak” izenburuko poema bilduma kaleratu zuen Susa argitaldariaren eskutik, eta hainbat taldek kantatu izan dituzte berak idatzitako testuak. Izan ere, Madarikatuak talde hernaniarrak grabatu zuen diskoko hitzak Morauk idatziak dira, bat izan ezik, herri berean sortutako Kantoi taldeak Morauren hitzak kantatzen zituen, eta Ama Say eta Deabruak Teilatueta taldeek kantatu izan dute Morauk idatzitako testurik.

Musikari gisa, 80ko hamarkadaren hasieran eman zituen lehen urratsak. 1981tik 1985ra arte, gitarra eta kutxarak jotzen zituen Crapulam Dormirae talde hernaniarrekin eta urte batzuk hasi zen bakarlarri gisa. Lehen kantaldia 1990garren urtearen amaieran egin zuen Hernaniko Bodega tabernan, eta handik urtebetera argitaratu zuen “Morau ta Galipot” maketa.

1992an eta 1993an Putre eta Ion Rica lagunekin aritu zen, eta hiruren artean grabatu zuten Morauren bigarren maketa 1993an, “Morau” izenburukoa. Hirugarren maketa Morauk bakarrik grabatu zuen. “Bakalau” da bere hirugarren maketaren izenburua.

Morau 1996ko udaberrian hasi zen diskoa prestatzen Joxi Ubedarekin.

Horrela, Joxiren gitarra elektrikoa eta koroak apaintzen hasi ziren Morauren gitarra akustikoak eta ahotsak interpretaturiko doinuak. Handik aste batzuetara Deabruak Teilatueta taldean aritzen diren Joni Ubeda (baxua) eta Iñigo Arruti (bateria) ere jotzen hasi ziren beraiekin, hainbat kanturen oinarri erritmikoa aberasteko. Laurek zenbait kontzertu egin ere egin dituzte Txabi Labaienen laguntzaz, Txabi teknikari moduan aritu baita kantaldiotan.



Diskoan biltzen diren 14 kantuak urriaren amaieran eta azaroan grabatu dituzte Katarain estudioetan, Angel Katarain teknikariarekin, eta estudioan ere aritzen diren Jonan eta Amaieren laguntzaz. Grabaketan zehar beste hainbat musikari ere aritu dira kolaboratzaile gisa: Deabruak Teilatueta taldeko kidea ere baden Imanol Ubeda (gitarra), Txabi Labaien (pianoa), Edorta de Pablo (tronpeta), Laiene Anabitarte (eskusoinua), Aitor Diez (guiroa), Putre (koroak) eta Maite Arroitauregi (txeloa).

Azken 5 urteotan Morau bere gitarrarekin ikusi izan dugu tabernetan jotzen, elkartean, gaztetxean, kultur etxean... Toki horietan entzun ditugu bere kantuak, batzuk ironikoak, beste batzuk ez hainbeste, baina denak errealitatearekin lotuta daudenak. Eta entzuten jarraituko ditugu. Izan ere, Morau kantari doa./Erredakzioa.

DBH=ESO - Baina zer

arraio da?

DBH dela eta ez dela erdi zorabiatuta gabiltza denok aspaldian. Bai, badakigu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza esan nahi duela eta beroni esker herriko haurrak 16 urterarte hementxe geldituko direla ikasten. Baina hortik aurrera duda-mudak hasten dira herritarron gehiengoaren artean. Gauzak argitzearen ikastolara jo dugu informazio bila eta hona hemen lortutakoa: Lehenik eta behin kurrikulum sendoak lortu nahi dira eta era berean kurrikulum hauek eta egiturak gizarte moderno teknologiko eta aurreratuan kokatu. Hau lortzeko erabiliko diren kontzeptuak bizitzari eta munduari buruzkoak izango dira, beti ere aniztasuna azpimarratuz.

Ikasleei dagokienez, berriz, partaidetza bultzatuko da eta baita jarrera konkretu batzuk. Horrela, jarrera pertsonalei dagokienez autonomia, erantzunkizuna eta kritikotasuna landuko dira; eta gizarte mailako jarrerari dagokienez errespetua, elkartasuna, natura eta ingurunearekiko begirunea, herkidetza eta pakearen kultura.

Honek guztiak hezkuntzaren kalitatea hobetzea dauka helburutzat, baina noski, horretarako aldaketa batzuk ere beharrezkoak dira. Hau dela eta, hemendik aurrera Haur Hezkuntza 6tik 12 urtetara bitartekoa izango da; Lehen Hezkuntza 6tik 12 urtetara bitartekoa; Bigarren Hezkuntza 12tik 16 urtetara bitartekoa eta Batxilergoa 16tik 18 urtera bitartekoa.

DBH-a gaindituz gero Batxilergoa zein erdi mailako Lanbide Heziketa aukeratu daiteke. DBH-a gainditzen ez dutenek, aldiz, oraindik arautu gabeko gizarte garantiako programetara joateko aukera izango dute.

Beraz, eskematxo honetan ikusten denez, derrigorrezko hezkuntza 16 urterarte luzatzeaz gain badirudi haurrengan hainbat balore garrantzitsu barnerazi nahi dituztela. Ea horrelaxe den, emaitzak ikusi behar. / Ubane M.

AGENDA

HAMABOSTALDI KULTURALA SORALUZEN ABENDUAK 18TIK URTARRILAK 5ERA

ABENDUA

ASTEAZKENA 18

Arratsaldeko 7etan **"BREVE EXIGÜO"**
Madrileko Antzerki Taldea

OSTEGUNA 19

Arratsaldeko 8etan **"MENDI DIAPOSITIBAK"**

OSTIRALA 20

Gaueko 10etan **"ANESTESIA"** eta **"DUT"**

LARUNBATA 21

Arratsaldeko 7etan **"ITOIZ"**ko Urtegiari buruz txarla eta
bideo berriaren aurkezpena

Gaueko 11tan **"KOIUNTURA"** Nafar Folk Taldea

IGANDEA 22

Arratsaldean zehar **KALEJIRA**, Perkusioa, Zankoak,
Trikitilariak, Malabarak, Txalaparta eta bertsolariak.

ASTELEHENA 23

Arratsaldeko 7etan **"MALTZAGA-URBINA"**ri buruzko
txarla informatiboa

OSTEGUNA 26

Arratsaldeko 8etan **"FLAMENCO SOMACAY"** Taldea

OSTIRALA 27

Gaueko 10etan **"TRAGO LARGO"** Gasteizko Blues Rock
Taldea

IGANDEA 29

Arratsaldeko 8etan **"OIHULARI"** Clown Taldea

ASTELEHENA 30

Arratsaldeko 7,30etan **"KAOS en ALEMANIA"** bideoa

URTARRILA

OSTEGUNA 2

Arratsaldeko 7etan **"HISTORIAS DEL CRONEN"** Filmea

OSTIRALA 3

Gaueko 10etan **"BIZKAR HEZURRA"**

LARUNBATA 4

Gaueko 9,30etan **AFARI POPULARRA**
Afal ostean **EUSKAL KANTARIAK AMAITZ**
Taldearekin

Oharra: Afari popularrerako apuntatu barran, Urtarrilak 3
ostirala baino lehen. 1500 pzta (Entsalada eta
oilaskoa).

GAZTELUPE TABERNAKO AGENDA

URTARRILA

Diapositiba emanaldi komentatuak
Gaia: **"Alaskatik Tierra de Fuegora bizikletaz egindako
bidaia."**

Aristides Kanariar kantariarekin kafe antzerkia

Anari azkoitiako kantautorea

Los Morochos Tangoak

OTSAILA

22an: **"ROGELIO BOTANZ eta bere taldea"** arituko dira
zinemako antzokian. Musika, dantza eta perkusio kanarioa
eskeiniz.

MAD KENNELS

Ezozki bideko lokaletan nago, egunero egiten dudana bezala batera jotzen, gustora, ahal dudana soinu eta erritmo bereziak sortuz.

Alboko lokalera noa :

Zer musika mota duzue gustokoa?

Musika Hard Core zuzena, indarrez eta kemenez egindako musika. Dena dela benetan musika etiketatzeak, kalte egiten dio musikari, erreduzitu egiten duelako.

Zenbat denbora daramazue jotzen?

Mad Kennels taldea orain dela 2 urte sortu zen.

Berezko abestiak edo bertsoak jotzen dituzue?

Abesti propioak eta bertsoak, punk musika atsegin dugu eta RKL, Sepultura, Anti cuerpas, eta La Polla taldeen bertsoak ondo prestatzen ahalegintzen gara.

Uste duzue musika serioa hartu behar dela edo hobby moduan? Zoroak dira artistak edo zer ote dira?

Serioso ari gara hartzen taldea. Eta bigarren galderari dagokionez, artistak eta zoroak puntu asko berdinak dituzte.

Zeri buruz mintzatzen zarete abestietan? Zer gai aukeratzen duzue?

Egunero sortzen diren gaietat, elkar bizitzako arazoetat, sexu harremanez, drogez, diruaz, lanaz, trapitxoez, mafiez; bizitzaz, azken finean.

Zer pentsatzen duzue musikak duen rolo komertzialaz, diska etxez eta musikaren ostean sortzen den show businessaz?

Nazka ematen digu rolo komertzialak, musikaren prostituzioa, dena erosten eta dena saltzen den

mundua. Diruaren boterea, makinaren esklabutza.

Zer da zuentzat musikari izatea?

Gu geu izatea, norbera izatea, geure ikuspuntu propioekin, egunero barruan daramaguna landuz, pausokata taldea sortaraziz. Taldeko kideak hauek gara: David (Baxua), Miguel (gitarra), Karlos (tanborrak) eta Fernando (gitarra).

Noizko daukazue buruan kontzertuak egiten hastea?

Uste dugu udarako prestatuta edukiko dugula kontzertuak emateko errepertorio aberatsa. Ahalik eta koherentzia handienarekin lantzen dugu gure eguneroko lana.

Nondik ateratzen duzue kantak egiteko mamia edo inspirazioa?

SORALUZE
Arkupe

Santa Ana, 22 • Tel. 75 21 80



S
O
R
A
L
U
Z
E

Neskek garrantzia handia dutenez gure bizitzetan, inspiratu egiten gaituzte. Ez dagoelako neska baten irrifarre garbi batekin ezer konparatzerik.

Azkenik, bukatzeko, zer iritzi duzue azken bolada honetan "bakalao" dioten

mobidak duen indarrari buruz?

Musika guztia gustatzen zaigu, ez dugu ezer baztertzeko, baina "bakalao" mobida, oso komertziala dela uste dugu, natura gutxiarekin egindako negozio galanta. Musikaren degenerazio hutsa.

Bukatzeko, erlojua atera eta 8ak direla konturatu naiz, giro onean egon gara elkarrizketan, zinta bukatu denean kasetak salto egin du, honekin badut zeozer idazteko, zuek ere musika arloan lan dotoreak egiteko aukera.



ARMENDIA

JATETXEA

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak.
ERA GUZTIETAKO
OSPAKIZUNAK

Ezozia 4004 11 Tel. 75 10 02 SORALUZE



**PIL-PILEAN
ALDIZKARIKO ATEAK
ZABALIK DITUZU!!!**

PLAZENTZIAKO BERBAK ETA ESAMOLDEAK

Atal honetan azalduko diren hainbat hitz eta esamolde bere garaian Antxon eta Edu Oregik egindako lanean oinarrituta daude. Hitzak, esamoldeak eta adibideak Plaentxieraz idatzita daude hemengo ahozkeraren erakustearren, beraz, ortografian egon daitezkeen akatsak kontuan ez izatea espero dugu.

HITZAK:

- **Barriketa:** Hizketa, berbetia. Adibidez: Hau da txatxaria hau, goiz guztia barriketan emon dou.
- **Beherakua:** Sabelekoa, "diarrea". Adibidez: Egun guzti santua komunetik urten ezinda nao beherakuakin.
- **Berbatsu:** Berritsu, berbontzi, hitzontzi, nekagabe hitz egiten duena. Adibidez: Isildu hari, berbatsu hori!

ESAMOLDEAK:

- **Barriren barri:** Orain arte eginiko lana utzi eta berriro hasieratik hastea. Adibidez: Oñ arte eindakua apurtu eta barriren barri hasiko naiz.
- **Beltzak ikusi:** Norbaitek arrazoi bategatik oso gaizki pasatu duenean erabiltzen den espresioa. Adibidez: Gorrixen denboran beltzak ikusi zitxuan horrek.
- **Begiratu baten:** Begiratu bezain laister. Adibidez: Horrek begiratu baten daki zeinek irabaziko daben.

PAGOBEDEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA

ARIES

Osasuna: Uda eta udazkenean pasatu zara benetan! Eta kilo guzti horiek nola kendu orain, jateko garai aproposena denean?

Dirua: Hainbeste loteria erosita aberastu ez baina poltsikoak hustu egingo dituzu agudo. Hobe eskuan dagoen txoria...

Maitasuna: Hotz ikaragarria egiten duela eta ezin aukera hobea arrimurako. Helduiozu eta ea kosk egiten duen!

TAURUS

Osasuna: Egin zenituen itsasoko paseoak? Horrela ez bada ez etorri neri gero txotxolokeriekin! Hozpelak izateko arriskua, zaindu belarri horiek!

Dirua: Zuri osterara joan zaizkizu garai goibelak; eros ezazu bostean bukatzen den loteria zenbakiren bat, Atxolinerara etorri, bi buelta eman trikuharriari eta bapo diruz sasoi baterako!

Maitasuna: Maitasun hitzak humil ta samurrak, besterik ez zekien hain gaztea zan...Berogailua beharko!!

GEMINI

Osasuna: Jaietakoa ederra benetan! Nik esan eta zuek egin dena bat! Oraingoan ere gogor ekin eta urte berriari begira proposamentxo... utzi erretzeari.

Dirua: Inoren bizkar ibiltzeko hartu duzun ohitura ez da nik esan nahi zuena! Dirua aurreratzeko modurik onena proposamenari kasu egitea.

Maitasuna: Etzuela nahi...Eta ganbararik ez osterara! Negu zitalari aurre egiteko esku berogailua erosi.

CANCER

Osasuna: Eztarri hori, eztarri hori!! Kipula gordina erdibitu, eta gauzez mesanotxean jarri. Usaina ez da onegia baina emaitza ezin hobea.

Dirua: Zure ohiturei jarraiki, zaindu gastuak, batez ere Gabonetako erosketak, eta aurreratutakoaz merkealdiak disfrutatu.

Maitasuna: Musurik musu ibili ondoren merezi duzu zerbait gehiago. Apurka apurka egiten da piloa, zatoz besoetara astakiloa!

LEO

Osasuna: Fiura ederra lortu, gorputza hainbeste zigortu eta orain asetu eta mozkortu!! Ez baduzu entzun nahi, begiak itxi eta belarriak gortu.

Dirua: Jokatutakotik datorrena errez xahutzen da, eh? Probatu berriro, agian...?

Maitasuna: Lizun halakoa, nork maiteko zaitu bada inoiz? Olentzerok berak ere ez zaitu maite. Izorratu!

VIRGO

Osasuna: Liraintasuna ederra, anorexia ezin itsusiagoa, txorrada gutxi eta jan gehiago.

Dirua: Olentzeroren jaia aprobetxatu eta etxez etxe joan diru bila. Gabon gabonete...aginaldo bestela...

Maitasuna: Eskatuiozu olentzerori zuk eta biok dakigun "panpin" hori, gutuna idatzi baina, eta euskaraz!!

LIBRA

Osasuna: Zure onera etorrita okerrago!! Zer da seriokeria hori?! Gabonetan osasuntsuena alaitasuna da, hartu panderoa eta jo ta ke!

Dirua: Dirua lortzeko aukerarik onena hau duzu. AEKko norbait topau, zozketako boletoak erosi eta 1997rako soldata zurea duzu!!

Maitasuna: Txoriburua denak ezin buruari inoiz kasu egin, beraz jarraitu bihotzari. Gaizki al doakizu horrela?

SCORPIO

Osasuna: udako lasaitasuna joan zaizu, kontuz eztarria, ipurdia eta ditiak hoztearekin. Irtenbidea paseatzea, gutxi hitzegitea eta harri gainean ez jartzea.

Dirua: Olentzerori laguntza ederra eman behar horrenbestentzat opariak ekartzeko! Larrialditik Gabonetako pagak aterako zaitu, eskerrak!

Maitasuna: Familiakoak hainbestetan maitatzeko izan duzun gogoia orain barreiatu, denak dituzu bihotz zabal eta!

SAGITARIUS

Osasuna: Txapela buruan eta ibili munduan! Ilea jausten hasiko zaizu Abenduaren 28tik aurrera, baina bost axola, orain burusoilen elkartea baduzu eta!

ALAITZ TABERNA

Ezozki etorbidea

SORALUZE

Tel. 75 11 90

YON IÑARRA HARATEGIA ETA URDAITEGIA

KALEBARREN, z/g Tfnoa. 751249
SORALUZE

DENBORAPASAK

B	I	R	A	M	L	A	I	X	T	I	P
A	Z	I	O	X	J	A	M	L	N	I	J
S	L	E	N	M	X	P	M	U	K	H	E
A	O	T	Z	I	K	F	R	I	G	P	N
J	C	D	M	E	X	B	X	I	A	N	T
A	G	I	Z	O	N	T	S	O	A	K	I
U	M	X	P	F	N	G	T	O	M	A	L
N	T	I	S	I	O	N	O	N	R	I	A
A	S	M	T	R	U	A	P	R	D	E	K
S	O	R	G	I	N	A	E	M	R	T	O
I	A	E	Z	E	Z	K	O	F	Z	I	J
M	H	T	O	L	A	T	R	A	T	Z	A

Gizontsoa
Basatasuna
Inguma
Mari
Lamiak
Sorgina
Martintxiki
Zezengorria
Tartalo
Jentilak
Akerra

Dirua: Egin al zenuen aldaketarik? Eta? Hobera jo badu lanak ondo, bestela ez lanik egin, ez du merezi ezta?

Maitasuna: Egunero egin aurretik errosarioa errezatzearena ez zen nik agindutakoa!!! Maitatzen zaitudalako kantatzen dizut zuri...(Maite zaitudalako hartu zaitut nire inuzente partikular) Dena gezurra da...

CAPRICORNIUS

Osasuna: Zuk zer uste duzu, martxa horretan luzaroan biziko zarela? Utzi tabakoari, edateari, gozokiak jateari eta ekin kirolari!!

Dirua: Ez zaude jokoan suerteko, baina...agian... Ez bazaizu ezer tokatzen ekin lapurretari, hori bai, duenari kendu eta soberakinak banatu.

Maitasuna: Sakoneko maitasun samina, samindu ez dakizun Sakonetako ingurura eramaizu eta sakondu hondoraino. "Sakon-sakon besteek diotena hor konpon".

AQUARIUS

Osasuna: Tripatxo hori ez da haurdunaldia, ezta gaixotasuna ere, zoriona da hori!! "Eman bakoitzari berea".

Dirua: Asmatu asmatu ez duzu ezer asmatu, lanik egin barik bizitzea aspaldi asmatua zegoen, halere "dirua nora, ipurdia hara".

Maitasuna: Lanbidea eta maitasuna nahastea; bizimodu eskastea. Horrela zioen Aristoteles gazteak.

PISCIS

Osasuna: Belaun eta ukondoak oso indarge dituzu, ez elur kirolik egin!! Izorrai! Beti ezin da "Aupalabirulena" ibili, zer nahi duzu ba?

Dirua: Gasturik apenas, besteen etxean gonbidatu, turroia eta txanpana beraz, ondo aprobetxatu. Miuria ere ez da zu bezalakoa.

Maitasuna: Bero-bero nionean ez nuen esan nahi laguna astintzeko!! Sadomasokismo ikastaroa, hilaren 28an Urkia-Zelain, izena emateko deitu 751434 telefonora.

BOKALAK IHESKA:

__RR__M__NT__R__RN
__TX__N__Z__TZ__
B__RD__NTZ__

ASMAKIZUNAK:

- a) Jendea etzanik uda partean pasaleku polita negu aldean
- b) Bueltaka ari da etengabe bere lekutik mugitu gabe
- c) Belarri luzeak, buztan motza azkar eta arin jauzi eta saltoka
- d) Alde batetik bestera presaka beti, barruan eramanez hainbat lagun eri.

ARGIBIDEAK LEHIAKETAREN

ORRIAN

Esaera zahar hauek osatzeko gai zarela uste baduzu, mugi azkar eta bidali 121 postakutxatilara zure datuekin batera.

Erantzun zuzenen artean opari eder bat zozketatuko da.

- Azaroa, negua motz
azaroa bero, negua
- Bostak eta, txerria eguna.
- Abenduko, argitu orduko
.....
- Santa Luzi gaua eta hazi.



Restaurante
TXURRUKA

Bº SAN IGNACIO - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Pub Intxixu

Tel. 75 20 36
Etxaburueta, 8 SORALUZE

KAIXO UMEOK!!

Urtero urtero ohi dudan legez, aurten ere banator bisita egitera nire lagunik maitegarrienak zareten umeei.


Badakit ilusioz beterik izango zaretela, erregaloak jasotzeko irrikitan, baina hori guztia bete dezadan lana erreztu behar didazue, hau da, gutunak behar bezala idatzi, euskaraz, letra garbiaz, eta erregaliaren eskakizunarekin batera, zuen zerbait kontatu behar didazue (hobeto ezagutzeko).

Gabon egunean, arratsaldeko 5,30etatik aurrera Plaza Berrian izango naiz gutunak biltzeko, goxokiak banatzeko eta sari eder bat ere zozketatzeko.

Beraz, ekar ezazu zure gutuna izena ondo jarrita eta elkar ikusiko dugu.

Ordurarte txintxo txintxo portatuko zaretelakoan zuen laguna den Olentzerok agurtzen zaituzte.

OLENTZERO



Santa Ana, 22
SORALUZE
Tel. / Fax: 75 20 56

*Eskola eta Ofizinarako materiala,
Fotokopiak eta Inprenta lanak*



ITSASTAR
Arraindegia

Santa Ana kalea, 13
Denda 752149
Etxea 75 16 27

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu herritar guztiei

Dohaineko iragarkiak

Jaiotakoak:

- * Iñigo Rodriguez Salamanca
- * Markel Gustino Matias
- * Nerea Martin Arizaga
- * Gorka Sudupe Ariznabarreta

Ezkontzak:

- * Begnino García Lobato eta Maria Teresa Tejero Sierra
- * Agustín Rodríguez Poza eta Maria Asunción Aranda Nuñez

Hildakoak:

- * M^a Cruz Bollain Lizarazu
- * Jose Luis Alberdi Guridi
- * Francisca Irazabal Uribe
- * M^a Aranzazu Txurruka Beraza
- * Maria Andoaga Aranceta
- * Pilar Facundo Arias
- * Valentin Larrañaga Maiztegi
- * Jesus Ota Vega
- * Florentino Maiztegi San Juan
- * Salvadora Mendizabal Basurto
- * Vicente Bascaran Gantxegi
- * Isidro Kortabarría Laskurain
- * Eva Makinay Seval
- * Juana Aldazabal Olabarria
- * Julia Argarate Agirrebeña

(Datuak azken 3 hilabeteotakoak dira.)

Salerosketak

Ondo dagoen keroseno berogailua salgai. 75-23-80.

Moduloa salgai Benimar 7 x 3,5. Bañares Kanping. Galdetu Mari Mar harategian. Errioxa.

Etxebizitzak

Etxebizitza amueblatua salgai. 75-16-77.

Sukalde, bainugela eta ate berriak dituen etxebizitza salgai. 75-14-80.

Etxea salgai. Gabolatx 23,1. 75-19-33 eta 75-10-34.

Teilaondoko etxebizitza (buhardila) salgai. 75-11-68.

Lana

Lehen mailako Hezkuntzako eta DBH (ESO) klaseak ematen diplomatua prest. 75-12-60.

PIL - PILEAN

aldizkaria egiten

dugun guztiok

oso jai

zoriontsuak opa

dizkizuegu.

HEMEN JOAN DAITEKE

ZURE PUBLIZITATEA

ZUEN PUBLIZITATE ESKARIAK ONDOKO
HELBIDERA BIDALI, FABOREZ:

121 POSTA KUTXATILA
20590 SORALUZE

**Gure eskerrik beroenak
EUSNET-eko lagunei**



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA